

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZO UDALA

ALKATETZAREN, UDAL HARREMANEN ETA BERDINTASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 13an hartutako erabakiaren laburpena: 2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartzea

BDNS(Identif.): 895150.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazio-nalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/895150>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Deialdi honen bidez bi programa arautzen dira: arrunta, herritar orori zuzendua, eta bera-riazkoa, kolektibo jakinetako kideei zuzendua: gurasoak; jantoki eta autobuseko begiraleak; ai-sialdiko begirale eta zuzendariak; eskola-kiroleko zuzendari, epaile, entrenatzaile edo begiraleak eta horretarako ikasketak egiten ari direnak, eta hiriko merkataritzako edo ostalaritzako langileak.

Bigarrena. Helburua

2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak ematea. 2025eko uztailetik 2026ko ekainera bitartean egiten diren ikastaroetarako emango dira diru-laguntzak. 2025eko ekainean hasi eta 2025eko uztailean amaitu ziren ikastaroetarako ere bai.

HABEK (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) onetsitako zentroek ematen dituzten ikastaroetarako izango dira dirulaguntzak, aurrez aurrekoak, urrutiko aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz mistoak izan.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 13an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 150.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2026ko ekainaren 30 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 13a

Alkatetzaren, Udal Harremanen eta Berdintasun Saileko zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIERREZ